



Iragarkia

Alkatearen ebazpenez onartutako 2024ko 2. hiruhileko ur-hornidura tasako errolda, jendaurrean jartzen da Gipuzkoako Tokiko Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauen 14.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onesten duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 68. artikuluan ezartzen den borondatezko zergabilketa epea eta modua adierazten dira. Hori guztia ondoko arau hauen arabera:

- Agertzen den tokia:* Udal Idazkaritza.
- Aztertze epea:* Hilabetekoa, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.
- Desadostasuna adierazteko epea:* Hilabete bat, b) atalean adierazi bezala, arauzko birjapen errekurtsuaren bitartez.
- Errekurtsoa aurkezten zaion organoa:* Alkate-Lehendakaria.
- Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan.
- Errekurtsoa tartejartzearen eraginak:* Aipatutako Foru Arauen 14.2 artikuluan xedatutakoak.
- Zergabilketa epea:* 2024ko abuztuaren 1etik irailaren 16ra.
- Sarrera modua:* Helbideratutako ordainagiriak baimenduriko erakunde eta kontuan 2024ko abuztuaren 16an zordunduko dira.

Helbideratu gabe daudenak, berriz, posta arruntez bidaliko zaizkio zergadunari berak adierazi duen helbide fiskalera eta edozein banketxe edo aurrezki-kutxetan ordain dezakete. Ordaintzerakoan, bidalitako ordainagiri osoa aurkeztu beharko da; une horretan hurrengo ordainagiriaren helbideratzea eskatu ahal izango da.

Abuztuaren 16rako helbide fiskalean erreziborik jasoko ez balitz, interesatuak Zaldibiko Udalean bikoiztua eskatu beharko du, jendaurreko bulego-orduetan.

Jakinarazi nahi da, zerga bilketa epearen barruan zor horiek ordaintzen ez badira, prozedura exekutiboaren bitartez exijituko direla eta premiamenduzko errekarua, berandutza interesak eta, bidezko balitz, sor daitezkeen kostuak gehituko direla.

Sinatzailea	ALKATEA IORITZ BERRA JUARISTI		
Kodea	O 24/0019	Udala	Zaldibia
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/78/AAAA1HK06.yE5h		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

